



2024SPLE0010  
10.bilera: OHIKOA 2024/09/26

## UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/10

EGUNA: 2024/09/26

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:25

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

### **BERTARATUAK:**

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

### **EAJ-PNV udal taldea:**

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

### **EH Bildu udal taldea:**

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain. (Telematikoki)

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue. (Telematikoki)

Edurne Aristi Careaga.

### **Orain Deba udal taldea:**

Isidro Aristi Oruezabal.

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra.

## **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.**

### **1.- Aurreko bilkurari dagokion akta onartzea, hala badagokio.**

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2024ko uztailaren 23an eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, inork ez zuen ezer adierazi, eta Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2024ko uztailaren 23an egindako osoko bilkuraren bileraren akta.

### **2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak azaldu zuen bazituela hainbat galdera.

- 363/2024 Dekretua, «Diziplina-espedientea irekitzea hondartzako toldoak kudeatzeko kontratatutako langile bati.» inguruan, galdetu zuen ez zein egoeran zegoen espedientea.

Idazkariak azaldu zuen pertsona hori orain Elgoibarren bizi dela eta arazoak egon zirela jakinarazpena egiteko. Horrela, pixka bat atzeratu dela, eta oraindik alegazioak edo egoki deritzona azaltzeko epean zegoela.

- 365/2024 Dekretua, «Baimena ematea espazio publikoaren 11,40 m<sup>2</sup> okupatzeko igogailu bat instalatzeko. Agirretxe plaza 1.» Agirretxe plaza erabilera publikoko eremu pribatu bat dela, eta galdetu zuen ea Udalari dagokion horrelakoetan baimena ematea.

Idazkariak azaldu zuen txosten teknikoan jasotzen zela igogailua jartzeko 11,40 m<sup>2</sup> espazio publiko erabiltzea beharrezkoa zela, eta hortik datorrela baimen hori.

Alkateak azaldu zuen, obra baimena ematea beti dagokiola Udalari, eta obra horretan azaroren bat zegoela eta Udalari zegokiola obra nola egin eta abarreko baldintzak ezartzea.

- 371/2024 Dekretua, «Kultura eta kirola kudeatzailea izendatzea.» eta 373/2024 Dekretua, «Kirol saileko dinamizatzailea kontratatzea Lanbideren administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programaren barruan.» Horren harira galdetu zuen zertan zetzan izendapen horiek, ulertzen zuela bata izango dela Kultura bakarrik kudeatzeko eta bestea kiroletarako gaietarako.

Alkateak erantzun zuen kultura eta kirola kudeatzailea dela lanpostua eta kirol dinamizatzailea laguntza bezala kontratatu zela. Kultura eta kirola kudeatzailea hutsik gelditu zen lanpostua betetzeko izan zela, eta bitarteko funtzionario gisa egin zela izendapena, lanpostua bete bitartean, eta gehienez ere, hiru urterako. Bestalde, kirol dinamizatzailearen kasuan, Lanbideren administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programaren barruan egin zela, eta horrek, hamar hilabeteko iraupena izango duela.

- 378/2024 Dekretua, «Ezestea azalera pribatuan dauden hesi bat konpontzeko eskaera.» Non eta zertan den gaia galdetu zuen.

Alkateak azaldu zuen Mogel kaleko 6. zenbakiaren atzeko aldean dagoen hesiaren buruzkoa dela. Eskaera bat egon zela Udalak hesi hori konpon zezan, eta katastroa kontsultatuta ikusi zela hesia dagoen lursaila ez dela publikoa, komunitaterena baizik. Horrela konponketa hori ez zegokion Udalari eta komunitateak berak egin beharko duela.

- 382/2024 Dekretua, «Hasiera ematea Gizarte Zerbitzuetako udal eraikineko taberna-kafetegia ustiatzeko zerbitzu-emakidako kontratua esleitzeko publizitaterik gabeko prozedura



2024SPLE0010  
10.bilera: OHIKOA 2024/09/26

negoziatuari.»

Alkateak erantzun zuen, taberna ustiatzeko lizitazioan eskaintzak aurkezteko epea ekainaren 15ean amaitu zela, eta hutsik gelditu zela ez baitzen eskaintzarik aurkeztu. Arbil jubilatuen elkarteak azaldu zuela ezagutzen zutela interesa izan zezakeen norbait, eta horrek taberna irekitzea ahalbidetzen zuelakoan, prozedura negoziatuari hasiera eman zitzaiola.

Gilen Garciak gehitu zuen, kontratua behin sinatuta hainbat lan egin behar zirela adostu zela, eta galdetu zuen hori horrela jarraitzen ote den, eta alkateak azaldu zuen lan horiek egiteko beharra jarraitzen duela, eta taberna ireki baino lehen egin beharko direla.

Gilen Garciak galdetu zuen ea zer aurreikuspen dauden, eta Alkateak erantzun zuen jubilatuen elkarteak ahalik eta azkarren zabaltzeko nahia adierazi dutela, baina gauza horiek bere prozedura izaten dutela, eta zaila dela epeak markatzea.

- 401/2024 Dekretua, «Sorosleen kontratuaren aldaketa.»

Alkatean azaldu zuen aurtengo sorosleen zerbitzurako kontratua iaz zerbitzua eman zuten langileek sortutako enpresarekin egin dela, eta negoziazioan adostu zela lan hitzarmen bidez soldataz igoz gero, kontratua aldatuko zela soldata igoera horri aurre egin ahal izateko, eta kontratuaren aldaketa horren ondorioa dela.

- 402/2024 Dekretua, «Esleitzea Simon Berasaluzeko lokalean udal bulegoetarako egokitzeko obrak egiteko kontratua.» Gaia nola dagoen galdetu zuen.

Alkateak erantzun zuen, kontratua esleituta zegoela, eta kontratua bera ere sinatuta zegoela, eta orain falta zela Udalaren eta enpresaren teknikariak eta obra-zuzendaritza biltzea zuinketa-akta sinatzeko eta, horrekin, obrak hasi ahal izateko.

- 444/2024 Dekretua, «Obra txikia. Endoia auzoko Ekaingo haitzuloan panel fotovoltaikoak instalatzeko baimena ematea.» Galdetu zuen non instalatu nahi ote diren panel fotovoltaiko horiek.

Alkateak erantzun zuen Zestoako Udaletik datorren zerbait dela, udal teknikariek gaia aztertu zutela eta baimena ematearen alde agertu zirela.

Idazkariak azaldu zuen Aldundiak hainbat sentsore eta abarrekokoak jarri zituela Ekaingo haitzuloan, eta tresna horiek biltzen dituzten datuak haitzulora sartu gabe lortu ahal izateko wi-fi zerbitzari bat jarri nahi dela, eta horretarako argi indarra behar da. Horrela, panel fotovoltaiko bat jarri nahi dutela, haitzuloaren sARBIDETIK 70 bat metrora jarriko den 4 bat metroko zutoin batean.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik gehiago, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

### **3.- Vialine enpresak kudeatutako 2024ko trafiko isunei buruzko Alkatetza dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetu zuen galderak edo iradokizunak ote ziren gai honen harira.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

#### 4.- Onartzea, hala badagokio, 2025 urterako taxien tarifak.

Aurkeztu zen AGITAX- GIPUZKOAKO TAXI ELKARTEak Debabarreneko eskualdean aplikatzeko tarifak berrikusteko proposamena, eta proposamenarekin batera aurkeztutako Euskal Autonomia Erkidegoko autotaxi baten kostu ekonomikoen eta ustiapenaren azterketa.

2025erako proposatuko taxien tarifak %2,90eko igoera dakar 2024an indarrean dauden tarifekin alderatuta, eta Antolakuntza Batzordeak, 2024ko irailaren 16an egindako ohiko bileran, 2025erako taxien tarifen proposamenaren aldeko irizpena eman zuen.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, erabaki zuen onartzea 2025. urterako taxi-tarifak. Taula honetan jasotzen direnak, hain zuzen:

2025erako HIRI BARRUKO TARIFA					
TARIFA 1*			TARIFA 2**		
Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua	Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua
6,3076€	1,5795€	21,1115€	6,8682€	1,7481€	22,1992€

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

(\*) TARIFA 1: Lanegunetan 07:00etatik 22:00etara.

(\*\*) TARIFA 2: Lanegunetan 22:00etatik 7:00etara; Larunbatetan, igandetan, jaiegunetan eta abenduaren 24an eta 31n, egun osoan.

#### 5.- Onartzea, hala badagokio, Leku Ona Global Solutions SL enpresak aurkeztutako Itziar-Deba-enpresa parkeko 18.8 partzelako xehetasun-azterlana.

Ikusita 2024URED0002 espedientean Lurraldetasun Batzordeak 2024ko irailaren 18an egindako bileran emandako irizpena, aurkeztutako Itziar-Deba-enpresa parkeko 18.8 partzelako xehetasun-azterlana behin betikoz onartzearen aldekoa.

Udalbatzak, aho batez, hau erabaki zuen:

**Lehen.**- Behin betiko onartzea Itziar-Deba-enpresa parkeko 18.8 partzelako xehetasun-azterlana.

**Bigarrena.**- Xehetasun-azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, argitaratu aurretik Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan gorde dezan.

**Hirugarrena.**- Behin betiko onespeneraren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana aipatutako erregistroan gordailutu dela adierazita.

#### 6.- Onartzea, hala badagokio, Egile Mechanics SLU enpresak aurkeztutako Itziar-Deba-enpresa parkeko 18.6 partzelako xehetasun-azterlana.

Ikusita 2024URED0003 espedientean Lurraldetasun Batzordeak 2024ko irailaren 18an egindako bileran emandako irizpena, aurkeztutako Itziar-Deba-enpresa parkeko 18.6 partzelako xehetasun-azterlana behin betikoz onartzearen aldekoa.

Udalbatzak, aho batez, hau erabaki zuen:

**Lehen.**- Behin betiko onartzea Itziar-Deba-enpresa parkeko 18.6 partzelako xehetasun-azterlana.

**Bigarrena.**- Xehetasun-azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, argitaratu aurretik



2024SPLE0010  
10.bilera: OHIKOA 2024/09/26

Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan gorde dezan.

**Hirugarrena.-** Behin betiko onespeneren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana aipatutako erregistroan gordailutu dela adierazita.

### **7.- Onartzea, hala badagokio, HA 06 Amillaga jardute integratuko eremuaren kontzertazio-hitzarmena.**

Aurkeztu zen HA 06 Amillaga jardute integratuko eremuaren kontzertazio hitzarmenaren zirriborroa.

Eremua urbanizatzeko jarduketa programa (JUP) behin onartuta, jarduketa-sistema kontzertazio denez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoari jarraituz, derrigorrezkoa da kontzertazio-batzarra osatzea ahalbideratuko duen hitzarmena sinatzea. Hitzarmen hori lurzoruaren jabetzaren % 50 baino gehiago duten jabeak sustatu dezakete. Deba Udalak eta PROTEISA 2000 SL enpresak egikaritze-unitateari atxikitako eskubideen % 57,31 dutenez, nahikoa da kontzertazio hitzarmena bi jabe horien artean sinatzea, eta, behin sinatuta, kontzertazio-batzarra eratu daiteke.

Udalbatzak, aho batez, hau erabaki zuen:

**Lehena.-** Onartzea HA 06 Amillaga jardute integratuko eremuaren kontzertazio hitzarmena.

**Bigarrena.-** Berariazko ahalmena alkateari ematea hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Aldizkarian argitaratzea hitzarmena, denek jakin dezaten.

### **8.- Eskari eta galderak.**

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen eskaera edo galderarik.

Gilen Garciak azaldu zuen 2024ko uztailaren 23ko osoko bilkuraren bileraren aktan, eskari eta galderen puntuan, jaien aurrekontua zergatik ez zen plenotik pasa Aritz Larrañagak eginiko galderen inguruan, aktan jasotzen dela alkateak erantzun ziola ez zela lehen aldia hori gertatzen zela, 2022 eta 2023ko jaien aurrekontua ez baitziren plenoan onartu. Horren harira azaldu nahi zuela, alkateak esandakoa ez zela guztik egia, izan ere, egia dela 2023ko aurrekontua ez zela plenoan onartu, udal gobernu berriaren hasiera izan zelako, baina, 2022koak bai pasa zela, hain zuzen, 2022ko uztailaren 21ean egin zen osoko bilkuraren bileraren 4. puntua 2022ko San Roke jaien egitaraua onestea izan zela, bertan landu zela, eta eztabaida luze baten ondoren, onartu zela, EH Bildu eta Debarren Ahotsaren zinegotzien aldeko hamar botorekin, eta EAJko zinegotzien hiru abstentzioekin.

Alkatea erantzun zuen Aritz Larrañagak Herritartasun Batzordean azaldu zuenean jaietako aurrekontua plenotik pasa behar zela galdetu egin zuela eta esan ziotela aurrekontuetan horretarako partida bat onartuta zegoenez, ez zela zertan berriro ere plenotik pasa behar. Iaz ez zirela pasatu eta aurten ere ezin izan zutela pasatu, azaldu zuen bezala, Kultura teknikariak aldatu izana pixka bat zaildu egin zuela jaietako aurrekontuaren prestaketa. Gauza bera gertatzen ari zela jaien balantzearekin, oraindik era bat itxi gabe zegoela, eta Batzordean azaldu zuen bezala, itxi

ahala igoriko dutela beste alderdiei.

Gilen Garciak azaldu zuen onartzen zutela azalpenak, baina, atzera begiratuta, Udal gobernu bati eskatzen zaionarekin koherentzia pixka bat izaten saiatzea eskatzen zuela, eta onartzen badute ere arazoak egon litezkeela, behin baino gehiagotan azalde duten moduan, erabakiak hartu aurretik partekatu behar direla, ekarpenak jaso, eta abar.

Alkateak erantzun zuen nahiko zutela hurrengo astean bertan bildu eta gaia landu, baina, ezin izango dutela, beste konpromisuak dituztelako.

Bilera amaitu aurretik, Alkateak gogorarazi zuen urriko azken osteguna jai bezpera denez, adostutakoari jarraituz, hurrengo bilera urriaren 30ean, asteazkena, izango dela.

Besterik ez zegoenez, 19:25etan alkateak amaitutzat eman zuen Osoko Bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika  
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra  
Idazkaria

